

## Javier Arraste Ayerbek bere tesia irakurri du

2013/06/21

Ekainaren 19an, goizeko 11:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Javier Arraste Ayerbe Doktoregaiak bere doktoretesia aurkeztu zuen Pedro Biteri eta Arana Egoitzeko Aula Magnan. Tesiaren izenburua Machine Generated Vertical Vibration In Elevators eta tesi zuzendariak: Jose Manuel Abete, Stefan Kaczmarczyk.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Philip David Picton (The University of Northampton) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Felix Martinez Noguera (IKERLAN) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Inge Isasa Gabilondo (ORONA EIC) Dk. And.
- Mahaikidea: Ignacio Herrera Navarro (Universidad de Extremadura) Dk. Jn.
- Idazkaria: Laurentzi Aretxabaleta Ramos (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Igogailuetako konfortaz dihardu tesi honek: hain zuzen, eragingailuak sortutako bibrazioek, bidaiarien konforta kaltetu dezakete.

Hainbat neurketa-saio egin dira laborategiko muntaietan eta erakutsi da makinan sorturiko maiztasunetan bibratzen duela bidaiari-multzoak, bereziki sistemaren maiztasun naturaletatik gertu daudenean.

Igogailuen bidaiak simulatzen duten zenbait modelo garatu dira, erabilgarri direnak diseinu zein analisi erreminta gisa igogailuen garapenean.



Javier Arrasate Ayerbe Tesia